

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua martxan jartzeko, hainbat kostu izango ditugu. Lehen azaldu dugun bezala, gure asmoa animalien babesa, sentsibilizazioa eta aholkularitza eskaintzea da, ahal den neurrian kanpoko espazioak eta natura erabiliz.




Horretarako ez dugu egoitza handirik behar; gure helburua udalekin harremanetan jartzea eta herriko baliabideak (txakur-parkeak, natur guneak...) aprobetxatzea da. Beharrezkoa duguna lokal txiki bat da, bulego gisa erabiltzeko, bilerak egiteko eta animalientzako materiala (pentsua, garraiatzeko kaxak, botikina...) gordetzeko. Gure bazkide baten familiak **Durangon** duen lokal bat erabiliko dugu. Lokal honek obra txiki bat behar du: margoztu, argiaren eta uraren instalazioa egokitu (animaliak garbitu ahal izateko gune bat barne) eta oinarrizko altzariak jarri.

Ekintzetarako material espezifikoak erosi beharko dugu (uhalak, jostailu hezigarriak, tailerretarako gaiak). Formakuntzak guk geuk eman ditzakegu, baina momentu zehatzetan kanpoko adituak (etologoak edo albaitariak) kontratatzea aurreikusten dugu.



Mugikortasunari dagokionez, gure autoak erabiliko ditugu animaliak garraiatzeko edo herri desberdinetara joateko. Beraz, gastu nagusiak gasolioa eta garraio publikoa izango dira. Komunikaziorako eta kudeaketarako, ordenagailu pare bat eta mugikor bat beharko ditugu.

Gure elkartean lan egingo dugun **bostok soldata berdina** izango genuke, baina emaitzen arabera. Irabazi asmorik gabeko erakundea garenez, kostu guztiak ordaindu ondoren geratzen dena denon artean banatuko genuke, betiere proiektuaren beharrak lehenetsiz. Irabaziak handiagoak badira, gure helburu nagusira bideratuko genituzke: animalien ongizatera. Hasieran gutxi irabaziko dugula badakigu, baina epe luzera soldata finko eta duin bat egonkortzea da gure asmoa.



Hona hemen gastuen banaketa zehatza:

GASTUAK	DESKRIBAPENA	HILEAN	URTEAN

Lokalaren obra	GUZTIRA: 5.300€. Instalazio elektrikoa (2.500€), iturgintza eta animalientzako bainu-lekua (1.000€), margoketa (1.000€) eta altzariak (800€). 2 urtera finantzatua, interesik gabe.	221€	2.652€
Materiala eta Animaliak	Tailerretarako materiala, pentsua, albaitaritza gastu puntualak eta formakuntzak.	500€	6.000€
Gasola eta Garraioa	Animalien garraioa eta herrien arteko mugikortasuna (estimazioa).	200€	2.400€
Ekipo informatikoa	Bi ordenagailu (1.200€), inprimagailua (70€) eta mugikorra (140€). Urte beteera finantzatua.	117,5€	1.410€
Komunikazioa (Wifia)	Euskaltelekin: 24,9€ lehenengo 6 hilabeteak eta ondoren 60€.	24,9€ / 60€	509,4€
Soldatak	Aldakorrak. Bostontzako estimazioa (500€ x 5).	2.500€	30.000€
Marketinga	Triptikoak, adopzio kanpainak, kartelak eta sare sozialak.	50€	600€
GUZTIRA		3.648,50€	43.571,4€